

FILOSOFIA. Javier Alonso, Jon Etxaide eta Hannot Rodriguezek itzuli dute Platonen 'Ion'

Platon, Kant eta Garateren filosofiak euskaraz argitaratu ditu Jakin-ek

Jenaro Garatek bere aitorpen filosofikoa egiten du 'Gizakia maitagogoa da' liburuan

Ainhoa Oiarzabal | DONOSTIA

Jakin Irakurgaiak bildumak beste hiru liburu kaleratu ditu: Platonen *Ion*, Ibon Uribarrik idatzirik *Kanten ezagutzaren teoria* eta Jenaro Garateren *Gizakia maitagogoa da* (nire aitorpen filosofikoa). Euskarazkoak eta irakurterazak, asteburu batean bukatzeko moduko liburuak dira hirurak, atzo sailaren arduradun Joxe Azurmendik adierazi zuenez. Bilduma hau «pentsamenduaren dibulgaziorako testuak» argitaratzeko sortu zela gaineratu zuen.

«Platonen *Ion* testua oso txikia eta polita da, filosofia hermeneutiko berrian garrantzi handia ematen zaiona», azaldu zuen Azurmendik Javier Alonso, Jon Etxaidek eta Hannot Rodriguezek euskaratu duten liburuz. Itzulpen «gozoa» egin dutela zehaztu zuen. Euskaratzeaz gainera, hitzaurreak eta oharak egin dituzte liburuan, eta grekeraz ere jaso dute *Ion* izeneko elkarriketa.

«Oso ezaguna ez bada ere, ikaragarri garrantzitsua da, mendebaldeko hermeneutikaren teoria finkatzen laguntzearekin batera, errealitatea nola interpreta esaten baitzigu. Batez ere, zeinek interpreta dezakeen», esan zuen Jon Etxaidek *Ion* lanaren balioaz. Platonek autoritatea jartzen duela jokoan argitu zuen, eta liburuan Greziako hainbat pertsonaia esan-guratsu kritikatzeko dituela.

Kanten pentsamendua euskaraz

Platonen hermeneutikak Mendebaldeko historia guztia «busti» duela gaineratu zuen Etxaidek: «Diskurtso modu arrazionala bide egokia dela dio, eta ez olerkigintza; hori kaltegarria dela dioen ideia defendatzen du. Hau da, filosofoari boterea emateko eta poeta baztertzeko deia egiten du». Platonen garai-ko Grezian olerkaria jendearen sentimenduak sortzen zituen norbait zen, «jendea manipulatzeko zuena, haren ustez». Zientziaren eta sentimenduen arteko zatiketa hori Mendebaldearen madarikazioa bilakatu da, Etxaideren aburuz: «Alde bate-rik, badakien jendea dago: arrazionala; eta bestetik, jende xelebre dago». Horiek denbora galtzen jarduten omen dute.

Ibon Uribarri filosofo gazteak beste filosofo handi baten, Kan-



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Javi Alonso, Ibon Uribarri eta Jon Etxaide, atzo, Donostian, liburuaren aurkezpen ekitaldian.

JOXE AZURMENDI

Jakin Irakurgaiak saileko arduraduna

«Filosofiak Euskal Herrian fedea kolokan nola ipini izan duen azaltzeko argitaratu dugu Jenaro Garateren liburua»

ten, pentsamenduari buruzko liburua argitaratu du: *Kanten ezagutzaren teoria*. Aurretik, Immanuel Kant: *bizitza eta filosofia* (1997) eta *Kant eta Hegel: gerra eta bakeaz gogoetak* (1997) kaleratu ditu Jakinekin. «Liburu honekin, Kanten filosofia egoterra nahiko normalizatu gendituko litzateke, euskarari dago-kionean», azaldu zuen Uribarrik orain arte eginiko lanari buruz. Liburu horien guztien abiapuntua Uribarrik filosofo alemaniarri buruz eginiko tesia da.

Kanten pentsamenduari buruzko azken lana arrazoimen hutsaren kritika irakurtzeko gida-liburu gisa egin du: «Hala, irakurleari jatorrizko testuen erreferentziak ematen dizkiot, gaian sakontzeko erraztasunak ematearren». Arrazoimen hutsaren atal guztiak lantzen

IBON URIBARRI

Filosofoa

«Kanten arrazoimen hutsaren kritikaren gida-liburua da nirea. Sakondu nahi izanez gero, bertan daude erreferentziak»

omen ditu. Ezagutzaren arazoa, estetika trascendentala, espazioa, denbora... auzi ugari jaso ditu *Kanten ezagutzaren teoria* liburu berrian. Halaber, horrela lanetan maiz kanpoan uzten diren gauzak ere bildu ditu oraingoan; metodoaren irakaspenera, adibidez.

Liburuaren asmo nagusieta-ko bat Kanten filosofiaren arlo nagusia azaltzea da, baina badu beste xede sistematikoagoa: «Kanten filosofia orokorra hartu dut, eta, nolabait, filosofia egiteko modu baten aurkezpena ere bada». Finean, irakurleak gai horiei buruzko beste eredu bat topatuko omen du.

Fedetik federako bidaia

Kanten pentsamenduarekin lotu zuen Azurmendik Jenaro Garatek idatzi duen *Gizakia*

JON ETXAIDE

Filosofoa

«Filosofoari boterea emateko eta poeta baztertzeko dio Platonek. Ideia horrek du indarra, egun, Mendebaldean»

maitagogoa da (nire aitorpen filosofikoa) liburua: «Kantek eta filosofiak, oro har, Euskal Herrian hainbat jenderi fedea kolokan ipini izan omen dio. Bide horri helduz, horren berri emateko, argitaratu dugu Jenaro Garateren liburua». Hain zuzen, filosofia ikasten fedea galdu zuenaren lekukotza ematen du Garate ekonomistak. «Gero, filosofiarekin ika-mikan, berriro bere federa nola itzuli zen kontatzen du».

Jenaro Garate berak proposaturik kaleratu dute liburua. Hala ere, bildumaren asmoa ez dela inoren gogoeta pertsonalak argitaratzea zehaztu zuen Jakin Irakurgaiak saileko arduradunak. «Gaztelaraz askotan argitaratu den lekukotza euskaraz ematen duelako atera dugu».

MUSIKA

Lisabök 'Egun bat non-nahi' EPa kaleratuko du laster Acurela disketxearekin

J. Eskisabel | DONOSTIA

Lisabö taldeak *Egun bat non-nahi* izenburuko EPa grabatu du, eta laster kalean jarriko du Madrilgo Acurela disketxeak. Diskoak hiru kantu biltzen ditu, hirurak iazko Plaza jaialdian Lisabök aurkeztu zuen ikuskizunaren baitakoak.

Martxel Mariskalek gizaki baten egun arrunt baten bizitza kontatuz idatzitako narrazioa abiapuntutzat hartuta, ordubeteko musika sortu zuen Lisabök *Egun bat non-nahi* ikuskizunerako. Bi kolaboratzaile izan zituen Irungo laukoteak: Maite Arroitauregi biolontxelo jotzailea eta Santi Noain saxofoi jotzailea. Judas Arrieta margolariak eta Estibalitz Etxebeste, Ainhoa Arbelaiz eta Ruth Martinez dantzariak ere hartu zuten parte Kursaallean egin zen emanaldian.

Ezarian disko goraipatuaren ondoren, Lisabök kaleratzen duen lehen grabazioa izango da *Egun bat non-nahi*.

Bilboko Ayala Antzokiak Soroabalen zarzuela bat eskainiko du

Efe | BILBO

Gaurtik hasita Pablo Soroabalen konpositore eza-gunaren *La tabernera del puerto* zarzuela eskainiko du Bilboko Ayala Antzokiak. Berak ekoitziko ditu emanaldiak.

Jose Luis Egiluz ikuskizunaren musika zuzendaria esanetan, zarzuela hori Soroabalen obrarik adierazgarrienetako bat da. Halaber, askotan aurkezturiko lana omen da. Egiluzek musika eta testuaren kalitatea goraipatu zituen, eta abeslariarentzako erronka handia dela zioen. Marta G. Ubieta sopranoak, Jesus Lavid tenoreak, Luis Casino bari-tonoak eta Carmelo Barañano baxuak hartuko dute parte zarzuelan, Ensanche abesbatzarekin.